

{ datorrena } Maite UBIRIA BEAUMONT

Noiz helduko zain zinen, baina etxean zenuen piztia

C essay herria gutxitan albistegietan agertzen den Ain izeneko departamenduan dago. Bertako biztanle batek, Mouradek, jipoia jaso zuen kalean algaran ziren bi pertsonari auzoen atsedean orduak errespetatu behar zutela esatera ausartu zelako. Hamar eguneko lan uztea agindu zion medikuak. Zauri larriak eragin zizkioten erasotzaileek hiru urteko kartzela zigorra jaso dute.

Ez zen liskar soila izan, hil egingo ote zuten beldur izan zelako Mourad. Ez zen alkoholaren gehiegizko kontsumoaren aitzakiari helduta erraz gutxietsi zitekeen pasadizoa izan. Erasotzaileek «joan zaitez zure herrialdera» bota ziotelako biktimari.

Mouradek, ordea, ez du beste herrialde batera joateko aukera. Berak, jaiotzez, hezkuntzaz, bizimoduz, baita borondatez ere, bere bi erasotzaileekin aberria partekatzen duelako. Frantsesa da, nahiz eta bere herrikide batzuek kanpotartzat duten. Are, beraien ustez atzeritik etortzen direnek jaso behar duten tratu eman zioten Mouradi. Erasoari buruzko sakoneko arrazoiak auzi arrunt baten bidez argitzea espero zuen gizonak. Ez zioten aukera eman. Erasoak gertatu eta pare bat egun geroago auzi azkarra egin zuten. Hala, bigarren mailako auzi administratibo gisa hartu zuten, nonbait, berari gertatutakoa. Hurrengo urratsa zein izanen da? Afera arrazakeriari buruzko txostenetatik kanpo uztea?

Orain hemerrotekara joz gero, erasoak itxuraldatu dutela jabetuko gara. Auvergne eskualdeko hainbat hedabide irakurrita, nekez susma daiteke gizarte osoari kalte egiten dion bortizkeria ekintza gertatu zela 5.000 biztanleko herri txiki horretan. 'Le Progres' izeneko kazetaren arabera, «gazteen arteko liskarra tartean, sare sozialen bidez zabalduriko irudiek komuni-

tate musulmana asaldatu dute». Albisteari emandako tratamenduaren bidez, gertatukoaren larritasuna biktimari esleituriko komunitate kidetasunaren arabera baloratzeko gonbidapena jaso du irakurleak.

Ezberdintasunen bilakaera neurtzen duen behatokiak iaz plazaratu zuen txostenak hau zioen: frantziarren %60k ez du bere burua arrazistatzat hartzen. Ikerketa lanaren arabera, azken hogeitaz ardira jaitsi da haien burua arrazistatzat aldarrikatzen duten herritarren kopurua frantziar Estatuan. Alta, eraso arrazisten bilakaeren azterketak erne izatera eramaten du, ezinbestean.

Antisemitismoa izan da amaitzear den hauteskunde legeegileen kanpainaren ardatz nagusietako bat. Horretan ere desitxuraketa erraldoia gertatu da. Erre-

Ezkerra antisemitaren mamu sinesgaitza
puztu dute hauteskunde kanpainan, Albin,
Rouenen edo Lyonen "Äuslander raus"
(atzerritarrak kanpora) ereserki nazia
kantatzea bihurrikeria bezala hartuta

sistentzian izan zirenen oinordekoak juduen jazar-tzailetzat jo dituzte. Aldiz, konzentrazio-eremuetara eramane zitutzenen follower berriak abantzu juduen babesle gisa mozturrotu dituzte.

Giro gaiztotu horretan, eraso arrazistak eta homofoboak biderkatu direlako arrangura agertu du LDH elkarteak. Rouen edo Albin "Äuslander raus" (atzerritarrak kanpora) himnoa entzuten da kontzertu getan. Lyonen, neonazien desfileak zeharkatzen dituzte lehenagotik ere karrikak herraren mezuak barreiatuz. Bihar, lurralde askea irudikatuz harresia altxatzeko erronka du Euskal Herriak. Botoa ematea ez da aski, ziur; bai, ordea, ezinbesteko urratsa. •